

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN
ETA BERANGOKO UDALAREN
ARTEKO LANKIDETZA
HITZARMENA HIRI-
HONDAKINAK TRATATZEKO
ZERBITZURAKO**

**CONVENIO DE COLABORACION
ENTRE LA DIPUTACION FORAL
DE BIZKAIA Y EL
AYUNTAMIENTO DE BERANGO
PARA EL SERVICIO DE
TRATAMIENTO DE RESIDUOS
URBANOS.**



Bilbon, 2008ko Ekainaren 5 ean

AGERTU DIRA

Batetik, Iosu Madariaga Garamendi jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saileko foru diputatu titularra eta horren legezko ordezkaria denez, hitzarmen hau sinatzeko ahala du Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2008ko Ekaina(r)en 3an izandako bileran hartutako akordioaren bidez.

Bestetik, M^a Isabel Landa Gaubeka anderea, BERANGOk Udaleko alkatea-mahaiburua. Ekitaldi honetan mahaiburu jardunak dituen korporazioren ordezkaria da 2008ko Maiatza(r)en 20ko osoko bilkurako udal erabakiaren arabera.

Bi aldeek elkarri **LANKIDETZA HITZARMEN** hau sinatzeko erabateko gaitasun juridikoa aitortu diote eta ondorioz,

AZALTZEN DUTE

Bat.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta BERANGOk udalak hiri-hondakinen kudeaketarai dagokionez, iraunkortasunera bideratutako kudeaketaren alde egiten dute. Horietako edukiak ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatuko dira, hondakinak kudeatzeko aukeren Erkidegoko Hierarkiaren arabera. Hierarkia horren arabera, aurreneurriak hartzeko ekintzak garatu behar dira, batez ere, birziklatzeko eta balorizatze jarduerekin batera eta, azkenik, gainerako hondakinak seguru iraitzeko ekintzak, euren arriskutasuna gutxitu ondoren

COMPARECEN

De una parte, El Ilmo. Sr. D. Iosu Madariaga Garamendi, Diputado Foral Titular del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia y en representación legal de la misma, quedando facultado para suscribir el presente convenio, por acuerdo de la Diputación Foral en su reunión del Consejo de Gobierno celebrado el día 3 de Junio de 2008

Y de la otra Dña. M^a Isabel Landa Gaubeka, Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de BERANGO quien interviene en este acto en representación de la Corporación que preside, por virtud del acuerdo municipal plenario adoptado el día 20 de Mayo de 2.008.

Ambas partes se reconocen mutuamente plena capacidad jurídica para suscribir el presente **CONVENIO DE COLABORACIÓN**, a cuyo efecto,

EXPONEN

Primero.- La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de BERANGO apuestan por una gestión de los residuos urbanos orientada a la sostenibilidad, que intente aprovechar al máximo los recursos contenidos en los mismos de acuerdo con la Jerarquía Comunitaria de opciones de gestión de los residuos, según la cual se deben desarrollar prioritariamente acciones de prevención, junto con actuaciones de reciclaje y valorización y, finalmente, operaciones de eliminación segura para la fracción restante de residuos, una vez reducida su peligrosidad.

Bi.- Erakunde bien iritziz, hiri hondakinen tratamendua kudeatzerakoan beharrezkoa da ingurumenean eragin negatiborik ez egoteko aurreneurriak hartzea eta ingurumena babesteko mailarik handienak erabiltzea, indarrean dagoen araudia eta garapen iraunkorraren printzipioak bete ahal izateko.

Hiru.- Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorreko 74. artikulua ezarrita, hiri hondakinen arloan Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio udal jarduerak koordinatzea, gai honetako zerbitzuak modu integralean ematen direla bermatzeko, baita hondakinen kudeaketan udalaz gaindiko azpiegiturak sustatzea ere.

Lau.- Eskumen hauek egikaritzean, Bizkaiko Foru Aldundia da titular bakarra edo eskubide publikoko edo pribatuko beste erakunde batzuekin batera aritzen da hondakinak kudeatzeko azpiegitura hauen titulartasunean:

- 4 transferentzi toki hondakinak biltegitzeko: Durango, Gernika, Berriatua eta Zalla.
- 24 Garbigune.
- HHen 2 hondakindegia: Jatabe eta Igorre.
- Zornotzako BZB planta, ontziak eta ontzien hondakinak kudeatzeko.
- BERZIKLATU Ortuellan, hondakin handiak tratatzeko. Bazkide ditu

Segundo.- Ambas Instituciones entienden que el tratamiento de los residuos urbanos debe gestionarse de manera que se prevengan efectos negativos sobre el medio ambiente y con los máximos niveles de protección medioambiental que permitan el cumplimiento de las exigencias de la normativa vigente y los principios de desarrollo sostenible.

Tercero.- Por aplicación del artículo 74 de la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, en materia de residuos urbanos, a la Diputación Foral de Bizkaia le corresponde la coordinación de las actuaciones municipales en orden a garantizar la prestación integral de servicios en esta materia, así como el impulso de infraestructuras supramunicipales de gestión de residuos.

Cuarto.- En el ejercicio de estas competencias, la Diputación Foral de Bizkaia es titular único o participa con otras entidades de derecho público o privado en la titularidad de las siguientes infraestructuras de gestión de residuos:

- 4 estaciones de transferencia para el almacenamiento de residuos: Durango, Gernika, Berriatua y Zalla.
- 24 Garbigunes.
- 2 vertederos de R.U.: Jata e Igorre.
- La planta de BZB en Zornotza, para la gestión de los envases y residuos de envases.
- BERZIKLATU en Ortuella. para el tratamiento de los residuos voluminosos, siendo sus socios

Garbiker, A.B.

- Zabalgardi Bilbon, hiri-hondakinen balorizazio energetikorako.

Bost.- Berangoko udalak hiri hondakin solidoak tratatzeko hitzarmena sinatu zuen Garbiker Foru Sozietate Publikoarekin 1999ko ekainaren 18an. Esandako hitzarmena indargabe geratuko da honako hau sinatzean.

Sei.- Bizkaiko Foru Aldundiak Ontzi eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea beteko dela bermatzeko eta araudi horretan jasotako murrizte, birziklatze eta jasotakoak balorizatzeko helburuak bermatzeko beharrezko konpromisoak ezartzeko, eta Tokiko Erakundeen borondatezko parte hartzea araupetzeko ECOEMBESek sustatutako ontzien eta ontzien hondakinen kudeaketa sistema integratuan, 1998ko urrian bat egin zen ECOEMBES eta EAEk 1998ko irailaren 30ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenarekin eta ondoren lankidetzaren hitzarmenak formalizatu ziren Lurraldeko udalerriekin.

Zazpi.- Bizkaiko Hiri Hondakinak kudeatzeko 2005-2006 II. Plan Integrala abenduaren 16ko 10/2005 Foru Arauak onetsi zuen eta 2016. urterako lehen mailako hondakinik eta hondakin gordinik batere ez isurtzea izango da Bizkaiko hiri hondakinen kudeaketarako planaren helburu estrategikoa.

Garbiker, A.B.

- Zabalgardi en Bilbao para la valorización energética de los residuos Urbanos.

Quinto.- El Ayuntamiento de BERANGO el 18 de junio de 1999 firmo con la Sociedad Pública Foral Garbiker un convenio para el tratamiento de los residuos sólidos urbanos, que a la firma del presente decaerá.

Sexto.- La Diputación Foral de Bizkaia para garantizar el cumplimiento de la Ley 11/1997, de 24 de Abril de envases y residuos de envases y en orden a establecer los compromisos necesarios para garantizar el cumplimiento de los objetivos de reducción, reciclado y valorización recogidos en la citada normativa, y regular la participación voluntaria de los Entes Locales en el sistema integrado de gestión de envases y residuos de envases promovido por ECOEMBES, en octubre de 1998 se adhirió al Convenio-Marco de colaboración firmado entre ECOEMBES y la Comunidad Autónoma del País Vasco de fecha 30 de septiembre de 1.998, formalizando con posterioridad convenios de colaboración con los municipios del Territorio.

Séptimo.- El II Plan de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia 2005-2016 aprobado por Norma Foral 10/2005, de 16 de diciembre, establece como objetivo estratégico de la gestión de los residuos urbanos de Bizkaia alcanzar para el año 2016 el vertido cero de los residuos primarios o crudos.

Zortzi.- Administrazio Subsidiaritatearen eta banatutako erantzukizunaren printzipioak jasota daude ingurumen arloko V. Ekiteko Egitarauan eta horrek esan nahi du aitortzen dutela hiri hondakinak kudeatzeko eskumena udalerrarena dela, baita kudeaketa aurreratu batek eskualdeaz gaindiko irtenbideak eska ditzakeela ere eta beraz, Bizkaiko Foru Aldundiaren sustapena eska dezakeela.

Bederatzi.- hiri hondakinen kudeaketa integratuaren printzipioak adierazten du bakarrik egindako urratsak edo azpiegiturak ez direla gai sortutako hondakin denak kudeatzeko, Erkidegoko Hierarkiako maila guztietako jarduerak sartu behar dira; horrek kudeaketa-alternatiben konbinazioa eratzen du eta horiek udalerriaz gaindiko azpiegiturak behar dituzte nahitaez.

Hamar. - Toki-errejimenaren oinarriei buruzko 7/1985 Legeko 36.2.b) eta 57 artikuluen arabera eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 4.1.d) artikulua arabera, herri administrazioen arteko lankidetzaren printzipioa sinatutako lankidetzahitzarmenen bidez artikulatu ahal izango da.

Hamaika.- Aurrekoarekin bat etorrira, parte hartzen duten aldeek adostu dute lankidetzahitzarmen hau sinatzea klausula hauen arabera:

Octavo .- El principio de Subsidiaridad Administrativa y de Responsabilidad Compartida, recogidos en el V Programa de Acción en materia de medio ambiente, suponen el reconocimiento de que la competencia de gestión de los residuos urbanos es municipal, así como que una gestión avanzada puede requerir de soluciones supracomarcales y por tanto del impulso de la Diputación Foral de Bizkaia.

Noveno.- El Principio de Gestión Integrada de los residuos urbanos, que indica que ningún escalón o infraestructura en solitario es capaz de lograr gestionar la totalidad de los residuos generados, implica actuaciones en todos los escalones de la Jerarquía Comunitaria, lo que conforma una combinación de alternativas de gestión que necesariamente precisan de infraestructuras supramunicipales.

Décimo.- De conformidad con lo dispuesto en los arts. 36.2.b) y 57 de la Ley 7/1.985, de Bases de Régimen Local, y en el artículo 4.1.d) de la Ley 30/1.992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas, el principio de cooperación entre las administraciones públicas podrá articularse a través de los convenios de colaboración que suscriban.

Undécimo.- De conformidad con lo anterior, las partes intervinientes acuerdan suscribir el presente convenio de colaboración conforme a las siguientes cláusulas:

KLAUSULAK

BAT.- XEDEA.

LANKIDETZA-HITZARMEN honek izaera juridiko-administratiboa du eta bere xedea da BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK hiri-hondakinak (HH) tratatzeko zerbitzua eskaintzeko baldintzak araupetzea. HH horiek BERANGOKO udalerriak sortuko ditu eta BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI emango dizkio.

Adierazitako xedea betetzeko, aldeak HITZARMEN honetan dauden estipulazioetara mugatu beharko dira:

BI.- ZERBITZUAK

1.- Hitzarmen honetan aipaturiko zerbitzua udalerriak hiri hondakinak (masan jasotako hondakinak eta hondakin handiak) jasotakoan eskainiko da. Jaso ondoren BERANGOKO UDALAK garraiatuko ditu transferentzi tokira edo tratalkura eta BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK tratatuko ditu hondakin horiek ingurumenarekiko modu iraunkorrean eta ekologikoki modu erantzulean.

2.- Hitzarmen honetan aurreikusitako ondoretarako, "hiri hondakinak" izango dira masan jasotako hiri hondakinak eta hondakin handiak, Hitzarmen honen jarraipen batzordeak kontzeptu hori beste hiri hondakinen

CLAUSULAS

PRIMERA.- OBJETO.

El presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, de naturaleza jurídico-administrativa, tendrá como objeto regular las condiciones por las que LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA prestará el Servicio de tratamiento de los Residuos Urbanos (R.U) generados en el municipio de BERANGO y entregados a la DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA.

A fin de atender el expresado objeto, las partes deberán atenerse a las estipulaciones contenidas en el presente CONVENIO.

SEGUNDA.- SERVICIOS

1.- El servicio a que se refiere el presente Convenio se prestará una vez recogidos los residuos urbanos (residuos recogidos en masa y residuos voluminosos) por el municipio y realizado su posterior transporte por parte del AYUNTAMIENTO DE BERANGO hasta la estación de transferencia o planta de tratamiento, siendo la DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA quien procederá a su tratamiento de una forma medioambientalmente sostenible y ecológicamente responsable.

2.- A los efectos prevenidos en el presente Convenio, se entiende por "Residuos Urbanos" los residuos urbanos recogidos en masa y los residuos voluminosos sin perjuicio de que la Comisión de seguimiento del

zatiki batzuetara zabaltzeari kalterik egin gabe, betiere, Bizkaiko Hiri Hondakinak kudeatzeko 2005-2006 II. Plan Integralaren xede badira.

3.- Hiri hondakinen jabea BIZKAIKO FORU ALDUNDIA izango da hondakin horiek Foru Aldundiari emandakoan.

HIRU.- ANTOLAKUNTZA.

1.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA izango da dagokion kudeaketa-antolakuntza egiteko arduraduna, eta hori Garbiker S.A. erakundearen bidez egingo du. Enpresa horren kapitala publikoa da eta Bizkaiko Foru Aldundia da titular bakarra.

2.- Hondakinen zatiki bakoitzari ematen zaion tratamenduak Bizkaiko Hiri Hondakinak kudeatzeko 2005-2006 II. Plan Integraleko printzipio estrategikoak errespetatuko ditu.

3.- PIGRUBen aurreikusitako hiri hondakinen tratamendurako azpiegitura berriak abian jartzen diren heinean, eta hor aurreikusitako helburuak lortzeko, seigarren klausulan aurreikusitako akordio honen jarraipen batzordeak erabakiko du hondakin zatiki bakoitzarentzako tratamendurik egokiena.

LAU.- ZENBATEKOA.

1.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK HITZARMEN honen

presente Convenio acuerde ampliar dicho concepto a otras fracciones de residuos urbanos siempre que sean objeto del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016.

3.- Los residuos urbanos pasan a ser propiedad de DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA una vez se realice la entrega de los mismos.

TERCERA.- ORGANIZACIÓN.

1.- La DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA será responsable de la organización de la gestión que le corresponde, la cual será llevada a cabo a través de la entidad Garbiker S.A, empresa de capital público y titularidad exclusiva de la Diputación Foral de Bizkaia.

2.- El tratamiento que se dé a cada fracción de residuos respetará los principios estratégicos del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016.

3.- A medida que se vayan poniendo en marcha las nuevas infraestructuras de tratamiento de residuos urbanos previstas en el PIGRUB, y con el fin de alcanzar los objetivos previstos en el mismo, la Comisión de Seguimiento del presente acuerdo, prevista en la cláusula sexta, determinará el tratamiento más adecuado a cada fracción de residuo.

CUARTO.- PRECIO.

1.- El precio de los servicios prestados por la DIPUTACION FORAL

arabera eskainiko dituen zerbitzuen zenbatekoa urriaren 30eko 192/2007 FORU DEKRETUAN zehaztutakoa izango da. Dekretu horrek uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretua aldatu zuen eta Bizkaiko Foru Aldundiak hiri hondakinak behin betirako kentzeko zerbitzuaren prezio publikoa ezartzea adostu zen eta hori araupetzea garatu ere bai. Horren arabera, ordaindu beharreko zenbatekoa, zerbitzuaren osoko kosteak zehaztuko du.

Prezio publikoaren kudeaketa, likidazioa eta diru-bilketa Garbiker S.A. erakundeak egingo du, urriaren 30eko 192/2007 FORU DEKRETUKO 5. artikulua araberak. Erakunde horrek kapital publikoa du eta Bizkaiko Foru Aldundia da titular bakarra.

2.- Zerbitzua eskaintzeagatik igorritako faktura jaso eta 30 eguneko epean ordaindu beharko du zenbatekoa BERANGOKO UDALAK.

3.- Aipaturiko epe horretan ordaintzen ez bada, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK HITZARMENA bertan behera utziko du eta BERANGOKO UDALAREN kontu egongo da behar adinako aurrerapenarekin finkatzea beharrezko aurrekontuen izendapena.

BOST.- EPEA.

LANKIDETZA
HITZARMENAK 15 urte iraungo du sinatzen den datatik hasita. Epe hau

DE BIZKAIA por virtud del presente CONVENIO será el que se determina en el DECRETO FORAL 192/2007, de 30 de octubre, por el que se modifica el Decreto Foral 126/2006, de 11 de julio, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por el servicio de tratamiento de residuos urbanos para su eliminación definitiva prestado por la Diputación Foral de Bizkaia, según el cual el importe del precio público a satisfacer vendrá determinado por el coste total del servicio.

La gestión, liquidación y recaudación del precio público lo realizará la entidad Garbiker S.A, empresa de capital público y titularidad exclusiva de la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con el artículo 5 del DECRETO FORAL 192/2007, de 30 de octubre.

2.- El precio deberá ser abonado por el AYUNTAMIENTO DE BERANGO en el plazo de 30 días contados a partir de la recepción de la factura emitida por la prestación del servicio.

3.- El incumplimiento del pago del precio en el plazo que ha sido reseñado podrá dar lugar a la rescisión del CONVENIO por parte de la DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA, siendo de cuenta del AYUNTAMIENTO DE BERANGO fijar con suficiente antelación la consignación presupuestaria precisa.

QUINTA.- PLAZO.

La duración de este CONVENIO DE COLABORACIÓN será de 15 años a partir de la fecha de suscripción. Este

berariaz luzatu ahal izango da 5 urte bi aldeek hala erabakiz gero.

plazo podrá ser prorrogable expresamente por mutuo acuerdo entre las partes en una nueva prórroga de 5 años.

**SEI.- HITZARMENAREN
KOORDINAZIOA, INFORMAZIOA,
GARAPENA ETA BURUTZAPENA**

1.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK eta BERANGOKO UDALAK hitza ematen dute zerbitzuan tokatzen zaien zatia eska daitekeen dilijentziarekin burutuko dutela eta aldean arteko harremanean koordinazio-printzipioa nagusituko dela, ongi joan dadin.

2- Hitzarmen honen esparruan hondakinen kudeaketagatik sortutako informazioa elkarri igorriko diote Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri hondakinen Behatoki Iraunkorraren bidez. Bi aldeek euren esku dauden datuak eta estatistikak emango dituzte, ingurumen informazioa eskura izateko; sensibilizazio lanak eta hedapen-lan guztiak, herritarren parte hartze aktiboa eta eraginkorra bultzatzeko, garapen iraunkorraren ereduari aurrera egin ahal izateko.

3.- Horretarako, Jarraipen Batzorde bat sortuko da. Batzorde horretan hiru kide egongo dira, HITZARMEN hau sinatu duen alde bakoitzaren ordezkari gisa, eta zati bakoitzaren izenean agiri hau sinatu dutenek deitutakoan bilduko da Batzorde hori.

**SEXTA.- COORDINACIÓN,
INFORMACIÓN, DESARROLLO Y
EJECUCIÓN DEL CONVENIO**

1.- La DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA y el AYUNTAMIENTO DE BERANGO se comprometen a llevar a cabo con la diligencia exigible la parte que respectivamente les corresponde del servicio, primando en las relaciones entre las partes el principio de coordinación para una buena marcha del mismo.

2- En el marco de este convenio existirá un flujo de información recíproca generada en la gestión de los residuos a través del Observatorio Permanente de residuos urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia. Ambas partes se aportarán los datos y estadísticas que obren en su poder para facilitar el acceso a la información ambiental; las labores de sensibilización, y todas aquellas labores de difusión encaminadas a una participación activa y efectiva de la ciudadanía para avanzar en un modelo de desarrollo sostenible.

3.- A tal efecto, se constituirá una Comisión de Seguimiento integrada por tres miembros en representación de cada parte firmante del presente CONVENIO que se reunirá cuando sea convocada por quienes suscriben este documento en representación de cada parte.

ZAZPI.- EZ BETETZEA.

1.- Sinatu dutenek ez-betetze larria edo errepikatua eginez gero Hitzarmen honen babesean hartutako betebeharretan eta hitzarmenaren garapen eta burutzapenean hartutako akordioetan, kaltetuak hitzarmena aurrez suntsiarazteko gaitasuna izango du. Ondorioz, bete ez duenak ebazpen horren ondoriozko kalteak ordaindu beharko ditu edo, beste aldeak hala aukeratuz gero, hautsitako betebeharrak betearaziko zaizkio, kalteak ordaintzeaz gain.

2.- Aldeek hizpatu dute Hitzarmen honetako betebeharrak ez betetzearen ondorioz egon daitezkeen kalteetan sartuko direla, kasu guztietan eta muga izaerarik gabe, diruaren legezko interes-tipoaren gainean kalkulaturako interesen ordainketak hileroko, ez-betetzea gertatzen den datatik sortzen direnak. Eta horretarako ez da agindeirik eta galdegiterik beharko.

ZORTZI.- ESKUMENAK.

HITZARMEN hau sinatzeak ez du esan nahi sinatu duten aldeek euren eskumenei uko egiten dietenik edo aldatzen dituztenik. Alde horiek hitzarmenaren ondoriozko konpromisoen erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte.

SEPTIMA.- INCUMPLIMIENTO.

1.- El incumplimiento grave o reiterado por parte de los convenientes de las obligaciones asumidas al amparo de lo establecido en este Convenio así como de los acuerdos adoptados en desarrollo y ejecución del mismo facultará al perjudicado a resolver anticipadamente el mismo, con la consiguiente obligación del incumplidor de indemnizar por los daños y perjuicios que se derivasen de tal resolución o, a opción de la otra parte, a exigir el cumplimiento de las obligaciones quebrantadas, asimismo con la correspondiente indemnización de daños y perjuicios.

2.- Las partes expresamente estipulan que los daños y perjuicios que pudieran derivarse de cualquier incumplimiento de las obligaciones asumidas en el presente convenio incluirán, en cualquier caso y sin carácter limitativo el pago de los intereses calculados al tipo de interés legal del dinero con carácter mensual, que se devenguen desde la fecha en que se produjo el incumplimiento, sin que para ello sea necesario requerimiento ni intimación alguna.

OCTAVA.- COMPETENCIAS.

La firma del presente CONVENIO no implica renuncia ni alteración de las competencias que tienen atribuidas las partes que lo suscriben, las cuales asumirán exclusivamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que se derivan del mismo.

BEDERATZI.- INDARREAN SARTU.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean.

**HAMAR.- ESKUDUN
JURISDIKZIOA.-**

1.- Hitzarmen honek izaera juridiko administratiboa du.

2.- Hitzarmen honen ondorioz sor daitezkeen auziak bi aldeak ados jarrita ebartziko dira.

3.- Dena dela, eskumena izango du administrazioarekiko auzien jurisdikzioak administrazio bidea amaitutzat ematen duten akordioak edo ekintzak ezagutzeko, aldeei dagokien beste edozein foruri uko eginda.

4.- Horrela adostu dute aldeek ekitaldi honetan eta adostutakoa onartzen dutela adierazteko sinatzen dute HITZARMEN hau bikoiztuta goiburuan adierazitako tokian eta datan.

Ingurumeneko Foru Diputatua

Sin.: Iosu Madariaga Garamendi

NOVENA.- ENTRADA EN VIGOR.

El presente Convenio entrará en vigor el día de su firma.

**DÉCIMA.- JURISDICCIÓN
COMPETENTE.-**

1.- El presente Convenio tiene naturaleza jurídica administrativa.

2.- Las cuestiones litigiosas que surjan del presente convenio serán resueltas de común acuerdo por las partes.

3.- No obstante, será competente para conocer de aquellos acuerdos o actos que pongan fin a la vía administrativa la jurisdicción contenciosa-administrativa, con renuncia a cualquier otro fuero que a las partes pudiera corresponder.

4.- Así lo acuerdan las partes en este acto y, en prueba de conformidad con lo acordado, firman el presente CONVENIO por duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Udaleko alkate-mahaiburua

Fdo.: Mª Isabel Landa Gaubeka